

XEDAPEN OROKORRAK

EKONOMIAREN GARAPEN ETA AZPIEGITURA SAILA

5832

AGINDUA, 2019ko abenduaren 9koa, Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako sailburuarena, zeinaren bidez arautzen baita 2020rako zer-nolako tarifak ezar ditzaketen zerbitzu-emakidadunek ibilgailuen azterketa teknikoaren esparruan Euskal Autonomia Erkidegoan.

Ekainaren 6ko 2028/86 Errege Dekretuak arauak eman ditu ibilgailu automobilen, atoiari eta erdi-atoiari eta zatien eta piezen homologazioari buruzko EEEn zuzentarau jakin batzuk aplikatzeko.

Ekainaren 4ko 750/2010 Errege Dekretuan daude araututa hauek homologatzeko prozedurak: ibilgailu motordunak eta atoiak, makina autopropultsatuak edo atoiari eramaten direnak, nekazaritzako ibilgailuak eta ibilgailu horien guztien sistemak, atalak eta piezak.

Urriaren 23ko 920/2017 Errege Dekretuan dago araututa ibilgailuen azterketa teknikoa.

920/2017 Errege Dekretuaren 6. artikuluan dago araututa noiz eta zenbatero egin behar diren aldizkako azterketa teknikoak ibilgailuaren kategoriaren arabera.

Uztailaren 2ko 866/2010 Errege Dekretuan dago araututa zer izapide egin behar diren ibilgailuak erreformatzeko.

Martxoaren 16ko 48/2004 Dekretuak aldatuta, apirilaren 4ko 60/2000 Dekretuan dago zehaztuta zein diren ikuskatzeko, izapidetzeko eta kudeatzeko zereginak ibilgailu automobilen segurtasunaren eremuan, eta zein esleitu dakizkiekeen ibilgailuen azterketa teknikoaren zerbitzua ematen duten erakunde emakidadunei.

Apirilaren 4ko 60/2000 Dekretuaren 7. artikuluan dago ezarrita ibilgailuen azterketa teknikoaren zerbitzutik eratorritako tarifak dekretua bera garatzeko diren xedapenen bitartez finkatuko direla, dekretu beraren azken xedapenetako lehenengoan xedatutakoari dagokionez.

Industria, Merkataritza eta Turismoko sailburuaren 2000ko uztailaren 19ko Aginduaren bidez, apirilaren 4ko 60/2000 Dekretua indarrean jartzearen ondorioz, arau-testu bakarrean bateratu ziren ibilgailuen azterketa teknikoaren eremuko indarreko tarifa guztiak (2000ko irailaren 14koa EHAA).

Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismoko sailburuaren 2011ko abenduaren 5eko Aginduaren bidez arautu zen zer tarifa aplika ditzaketen ibilgailuen azterketa teknikoaren zerbitzua ematen duten erakunde emakidadunek 2012an; baina, horretaz gain, 8. artikuluan dago adierazita urtero eguneratu behar direla KPIaren gorabeheren arabera eta urtetik urterako urriko indizea oinarritzat hartuta.

Bestetik, tarifak azkenengoz eguneratu ziren 2018ko azaroaren 16ko Ebazpenaren bidez, zeina Energiaren, Meategien eta Industria Administrazioaren zuzendariak eman baitzuen egunean jartzeko ibilgailuen azterketa teknikoaren zerbitzua ematen duten erakunde emakidadunek aplika ditzaketen tarifak.

Horiek horrela, agindu honen xedea da: tarifa motak eta gai honi buruzko indarreko xedapenak egokitzea eta eguneratzea.

Hori dela eta, apirilaren 4ko 60/2000 Dekretuaren 7. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, hau

XEDATZEN DUT:

1. artikulua.– Agindu honen I. eranskinean dago ezarrita zer tarifa aplikatu ditzaketen ibilgailuen azterketa teknikoaren zerbitzuko erakunde emakidadunek aldizkako ikuskapenak egiteagatik.

2. artikulua.– Agindu honen I. eranskinean dago ezarrita zer tarifa aplikatu ditzaketen ibilgailuen azterketa teknikoaren zerbitzuko erakunde emakidadunek ibilgailuen ikuskapen teknikoak egiteagatik ibilgailuen erreformak erregularizatzearen ondorioz.

3. artikulua.– I. eranskineko tarifa berberak (ibilgailu motaren arabera gehi izapidetze-tarifa) aplikatu ditzakete ibilgailuen azterketa teknikoaren zerbitzuko erakunde emakidadunek hauen ondoriozko ikuskapen teknikoak egiteagatik: IAT txartela bikoiztu, matrikula aldatu, ibilgailu historiko gisa katalogatu, istripu larriak izan dituzten ibilgailuak aparte ikuskatu, eta baja izan den ibilgailu bat birgaitu.

Ikuskapenik behar ez bada, edo ibilgailua identifikatzeko ikuskapena baino ez bada, izapidetze-tarifa baino ez da aplikatuko.

4. artikulua.– Agindu honen III. eranskinean dago ezarrita zer tarifa aplikatu ditzaketen ibilgailuen azterketa teknikoaren zerbitzuko erakunde emakidadunek ibilgailu hauek matrikulatu aurretiko izapideak eta ikuskapena egiteagatik: Europar Batasunetik, Europako esparru ekonomikotik eta hirugarren herrialdeetatik datozen eta matrikulatuta dauden zein matrikulatu gabe dauden ibilgailuak eta ibilgailu osatuak.

5. artikulua.– Agindu honen III. eranskinean dago ezarrita zer tarifa aplikatu ditzaketen ibilgailuen azterketa teknikoaren zerbitzuko erakunde emakidadunek ibilgailuak pisatzeagatik, eskola-garraioaren eta adingabeen garraioaren azterketa espezifikoak egiteagatik, eta salaketaren baten edo borondatearen ondoriozko ikuskapen partzialak egiteagatik.

6. artikulua.– Agindu honen 1., 2., 3., 4. eta 5. artikuluetan adierazitako tarifek bigarren ikuskapena hartzen dute barnean, baldin eta lehen ikuskapenean atzeman bada zuzendu beharreko anomaliaren bat, eta lehenengo ikuskapena egiten denetik hilabeteko epean egiten bada, eta lehenengo ikuskapena egin duen IAT estazio berean.

Tarifek ez dute barnean hartuko bigarren ikuskapen hori, baldin eta salaketaren baten edo borondatearen ondoriozko ikuskapen partziala bada.

7. artikulua.– Ibilgailuaren titularrak eskatzen badu ikuskapena egiteko IAT estazioaren instalazioetatik kanpo, eta posible bada, erakunde emakidadunak fakturatu ahal izango ditu agindu honen III. eranskinean adierazitako joan-etorrien eta gutxieneko fakturazioaren gastuak. Fakturazio horren barnean sartuko dira bai ibilgailuaren bai lekualdatutako ikuskatzaileen gastuak, eta, horretarako, emakida-zona bakoitzaren barruan, abiapuntutzat hartuko da ikuskatu beharreko ibilgailua dagoen tokitik hurbilen dagoen IAT estazioa. Joan-etorria ez da fakturatuko baldin eta ikuskapena badago estazio mugikorren ikuskapen-programazioaren barruan.

8. artikulua.– Ez bada horri buruzko agindurik ematen behar den urtean, orain eguneratutako tarifak urtero eguneratuko dira KPlaren gorabeheren arabera eta urtetik urterako urriko indizea oinarritzat hartuta. Eguneratutako tarifak indarrean jarriko dira urtarrilaren 1etik aurrera.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

2020ko urtarrilaren batean geratuko da indargabetuta Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo sailburuaren 2011ko abenduaren 5eko Agindua, zeinaren bidez arautu baitzen

2019ko abenduaren 20a, ostirala

zer-nolako tarifak ezar zitzaketen zerbitzu-emakidadunek ibilgailuen azterketa teknikoaren esparruan 2012rako.

AZKEN XEDAPENA

Lehenengoa.– Industria-administrazioaren arloko zuzendari eskudunari ahalmena ematen zaio zernahi arazo ebazteko agindu hau eta aplikatu beharreko gainerako arauak interpretatu behar direnean, baita behar diren garapen-xedapenak emateko ere.

Bigarrena.– Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da eta, edozelan ere, ondorio juridikoak izango ditu 2020ko urtarrilaren 1etik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko abenduaren 9a.

Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako sailburua,
MARÍA ARANZAZU TAPIA OTAEGUI.

2019ko abenduaren 20a, ostirala

I. ERANSKINA
ALDIZKAKO IKUSKAPENENGATIKO TARIFAK

Ibilgailu mota	Dieselerako tarifa		Gasolinarako, hibridoetarako eta gainerakoetarako tarifa		Elektrikoetarako tarifa	
	Prezioa (€)	Prezioa % 21eko BEZa barne (€)	Prezioa (€)	Prezioa % 21eko BEZa barne (€)	Prezioa (€)	Prezioa % 21eko BEZa barne (€)
L	20,50	24,81	20,50	24,81	18,00	21,78
L ibilgailuak, behean aipatutakoak izan ezik.						
L5e-B, L6e-B, L7e-A2, L7e-B2 eta L7e-C (kuadriziklo kabinadunak eta antzekoak)	39,15	47,37	37,50	45,38	36,00	43,56
M	39,15	47,37	37,50	45,38	36,00	43,56
M1						
M2, M3	57,00	68,97	56,00	67,76	54,50	65,95
N	39,15	47,37	37,50	45,38	36,00	43,56
N1						
N2, N3	57,00	68,97	56,00	67,76	54,50	65,95
O	35,00	42,35	35,00	42,35	35,00	42,35
T eta nekazaritzako beste batzuk	31,44	38,04	31,44	38,04	31,44	38,04
Obra eta zerbitzu etarako ibilgailu bereziak eta makina autopropultsatuak	57,00	68,97	56,00	67,76	54,50	65,95
Zirku-makinetarako edo aisialdiko azoka ibiltarietarako ibilgailu egokituak eta transformazio-estazio mugikorrak.	57,00	68,97	56,00	67,76	54,50	65,95

Oharra: Trafikoko Buruzagitza Nagusiaren Ibilgailuen Erregistroan ibilgailuen azterketa teknikoaren emaitza idazteagatiko tasak gehituko zaizkie tarifa horiei, ikuskapen hori egiteko arauzko betebeharrak dagoen kasuetan.

II. ERANSKINA

ERREFORMENGATIKO TARIFAK

Eranskin honetan erreformaren ondoriozko ikuskapen teknikorako adierazitako tarifari III. eranskinean adierazitako izapideen ondoriozko tarifa ere aplikatuko zaio «erreforma-kode» bakoitzeko, Erreformen Eskuliburuan (indarrekoan, 866/2010 Errege Dekretuan gaur egun) ezarritakoaren arabera.

Erreformatan, ez bada aldatzen ibilgailuaren masa edo ardatzen banaketa, pisatze-tarifa ere aplikatuko da, azterketa teknikoagatik dagokion tarifaz gain. Ibilgailuaren pisatze-tarifa, hala badagokio, behin baino ez da aplikatuko, nahiz eta aldi bereko erreforma batzuek bestelakorik eskatu.

Izapidetzeko proiektu bat aurkeztea ezinbesteko duten erreformei proiektua berrikusteko tarifa gehituko zaie.

	Dieselerako tarifa		Gasolinarako, hibridoetarako eta gainerakoetarako tarifa		Elektrikoetarako tarifa	
	Prezioa (€)	Prezioa % 21eko BEZa barne (€)	Prezioa (€)	Prezioa % 21eko BEZa barne (€)	Prezioa (€)	Prezioa % 21eko BEZa barne (€)
Erreformatikotako tarifa	40,00	48,40	40,00	48,40	40,00	48,40
Proiektua berrikustea	20,00	24,20	20,00	24,20	20,00	24,20

III. ERANSKINA

BESTELAKO IKUSKAPEN ETA ZERBITZUENGATIKO TARIFAK

	Tarifa	
	Prezioa (€)	Prezioa % 21eko BEZa barne (€)
Izapidetzea	10,75	13,01
Ibilgailuak pisatzea	13,67	16,54
Matrikulatu aurretiko ikuskapena	37,06	44,84
Eskola-garraioaren eta adingabeen garraioaren azterketa espezifikoa	30,00	36,30
Ikuskapen partziala	Behar den aldizkako ikuskapenaren % 50, gehienez % 100	
Joan-etorrien gastuak (kilometroko)	0,56	0,68
Lekualdatzeagatiko gutxieneko fakturazioa	11,34	13,72

OHARRAK

1.– Matrikulatu aurretiko ikuskapenerako adierazitako tarifari gehituko zaio: ibilgailuaren kategoriaren arabera dagokion aldizkako ikuskapenaren tarifa, eta, hala badagokio, erreformak erregularizatzeko zein ibilgailua pisatzeko izapideengatikoa ere.

2.– Eskola-garraioaren ikuskapen espezifikoa aplikatuko zaie garraio mota horretan alta emanda dauden M2 eta M3 kategorietako ibilgailuei, eta aldizkako ikuskapenaren tarifari gehituko zaio.

3.– Eskola-garraioaren tarifa bera aplikatuko zaie eskola-garraioko alta-erreformei, eta erreforma-tarifari gehituko zaio.

4.– Ibilgailu arinei, taxiei batez ere, ez zaie eskola-garraioaren tarifa aplikatuko baldin eta taxien eskola-garraioaren ikuskapen espezifikokoak badira, eta ibilgailuaren aldizkako ikuskapenarekin batera egiten badira; aitzitik, aplikatu egingo da eskola-garraioaren ikuskapen espezifikoa baino egiten ez bada.